

**KOLEKTOREAK ETA HOBI SEPTIKOAK
GARBITZEAN ATERATAKO HONDAKIN UREN ZATI LIKIDOA
ETA ZATI SOLIDOA TRATATZEKO ZERBITZUAREN
TASAK ARAUTZEN DITUEN
ORDENANTZA FISKALA**

**KOLEKTOREAK ETA HOBI SEPTIKOAK
GARBITZEAN ATERATAKO HONDAKIN UREN ZATI LIKIDOA
ETA ZATI SOLIDOA TRATATZEKO ZERBITZUAREN
TASAK ARAUTZEN DITUEN
ORDENANTZA FISKALA**

1. Art. Foru Araua Ezarpen- eta Kudeaketa eremua

Kolektore edo hobi septikoen garbiketako hondakin-ureko zati likidoa eta solidoa saneatzeko zerbitzua emategatiko tasa Ordenantza honengatik arautzen eta exijitzen da, Gipuzkoako Tokiko Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 3. Sekzioko III. Kapituluko II. tituluaren xedatzen diren izaera orokorreko xedapenak betetzen dituenak.

Ordenantzaren ezarpen-eremua Añarbeko Uren Mankomunitateko lurraldeari dagokiona da; erakunde honen lurralde eremuan dauden kolektoreak eta hobi septikoak garbitzean ateratako hondakin-uren frakzio likido eta solidoa tratatzea eskatzen duten erabiltzaileek eskainiko zaie zerbitzua.

Tratamenduan kapazitate-soberakinak egonez gero, lurraldetik kanpokoak diren erabiltzaileei ere zerbitzuak eskaini ahal izango zaizkie, zerbitzu hori emateko erabakian zehazki ezarriko den kopuruaren ordainketa egin ondoren.

Añarbeko Uren Mankomunitateak tasa hauek kudeatu, likidatu eta bilduko ditu bere sozietate publiko kudeatzaile den Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak, S.A.ren bitartez (hemendik aurrera, AUSA).

2. Art. Zerga-gertaera

Ordenantza fiskal honetan arautzen diren tasen galdagarritasuna zehazten duten zerga-gertaerak dira, Mankomunitateak, bere sozietate publiko kudeatzaile AUSAren bitartez, ematen dituen zerbitzu hauek:

- a) Mankomunitatearen esparruko erabiltzaileek Loiolako HUAra eramaten dituzten kolektore edo hobi septikoen garbiketako hondakin-uren zati likidoa saneatzeko ematen duen zerbitzua da. Zerbitzu horren baitan dago: ur horiek HUAren onartzea -haien ezaugarriak, bolumenak eta duten zama kutsatzailearen arabera-; hartzea, deskargatzea eta araztea; eta horien garraiatze eta ingurune hidrikora isurtzea.
- b) Mankomunitatearen esparruko erabiltzaileek Loiolako HUAra eramaten dituzten kolektore edo hobi septikoen garbiketako hondakin-uren zati solidoa saneatzeko ematen duen zerbitzua da. Zerbitzu horren baitan dago: hondakin horiek HUAren onartzea -haien ezaugarrien eta bolumenen arabera-; hartzea, deskargatzea eta araztea; eta horien garraiatze eta leku baimenduan isurtzea.

3. Art. Sortzapena

Ordenantza honen xede diren tasen sortzapena, aipaturiko zerbitzuak ematen direnean aldi berean sortzen dira.

4. Art. Zerga ordaintzearen obligazioa

Ordenantza Fiskal honetan arautzen diren zerga-gertaeretan azaltzen diren zerbitzuak ematen diren unean jaiotzen da ordaintzeko obligazioa.

5. Art. Subjektu pasiboa: zergaduna

Ordenantza Fiskal honetan finkatzen diren tasen subjektu pasibo zergadunak dira: martxoaren 8ko Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tributu Orokorren 2/2005 Foru Arauko 35. artikuluan aipatzen diren pertsona fisikoak edo juridikoak eta entitateak; horiek, nahiz nortasun juridikoa ez eduki, unitate ekonomikoa edo ondasunekoa dute eta hortaz zergadun izan daitezke, kolektore edo hobi septikoen garbiketako zati likidoak edo solidoak Loiolako HUAra beren kontura garraiatzen dituztelako, hots, hondakin-urak HUAN entregatzen dituzten garraio-jardueraren titularrak, hondakin-ur horiek jatorrian sortu dituzten pertsona fisiko edo juridikoak kontuan izan gabe.

Haatik, garraioaren titular batek araztegian entregatzen dituen zati solido eta likido guztiak Mankomunitatea osatzen duten udalerrietako saneamendu-sare publikoen garbiketatan sortutakoak badira, zergaduna sare horien titularra den Udala izango da subjektu pasiboa. Hori dela-eta, garraioaren titularrak egiaztatu beharko du zati solido eta likido horiek Mankomunitatea osatzen duten Udaletako batek entregatu dizkiola, eta, bestalde, Udalak egiaztatu beharko du garraiolariari entregatu dizkion zati solidoak eta likidoak, soilik eta bere osotasunean, sare publikoen garbiketatik datozela.

6. Art. Kuota, zerga-oinarria eta zerga-motak

Ordenantza Fiskal honen xede den tasa ezartzeko kuotak zerga-gertaera bakoitzarengatik behin bakarrik exijituko da, eta zati aldakorra eta zati finkoa ditu. Honela:

a) Ordenantza Fiskal honen 2. artikuluko a) atalean aurreikusten den zerga-gertaera denean kuota honela kalkulatu da:

Zati aldakorra lortzen da zerga-oinarriari, hots Loiolako HUAN isuritako hondakin-uren bolumenarekin bat datorrenari (instalazioan bertan neurtzen dena Mankomunitateko zerbitzu teknikoengatik), dagokion tarifa aldakorra aplikatuz.

Zati finkoaren helburua da, izaera finkoa duten kostuen finantzaketa, eta hondakin-uren jatorriaren arabera finkatzen da. Ildo honetan, hauek dira gutxienez egin beharreko analitikak: pH, eroaletasuna, temperatura, esekitako solido totalak eta oxigenoaren eskaera kimikoa.

Ondorioz, erabiltzaileak ordaindu beharreko zerga-kuota edo tasa bi zatiren batura da, ondorengo adierazpenari erantzunez:

$$\text{Zerga-kuota} = T_{FL} + T_{VL} \times V$$

Non,

T_{FL} Emandako zerbitzuaren tasaren zati finkoa da, €tan adierazia. Zati finko hau Mankomunitateak finkatuko du eta Ordenantza Fiskal honen 1. Eranskineko 1.a) atalean ageri da.

T_{VL} Tasaren zati aldakorra da, €/m³tan adierazia, Loiolako HUAN isuritako bolumenari (m³etan) aplikatuko zaio

V Loiolako HUAN jasotako bolumena da, m³tan adierazia, eta baskulan pisatuz kalkulatzen dena, pisu espezifikoak 1 t / m³ dela suposatzen delarik.

Goiko formulako tasaren zati aldakorra (T_{VL}) ondorengo adierazpenaren bidez kalkulatzen da:

$$T_{VL} = \%50 \times T_{(Spd+v)} + CCC \times T_{DN}$$

Non,

$\%50 \times T_{(Spd+v)}$ Hartze, deskarga, garraiatze eta Loiolako HUAko hondakin-urak ingurune hidrikora isurtze zerbitzua emateari dagokion zerga-tasa da, € eta € zentimo/m³-tan adierazia. $T_{(Spd+v)}$ zati aldakorraren balioa Añarbeko Uren Mankomunitateak finkatzen duena izango da eta Ordenantza Fiskal honen 1 Eranskineko 1.b) atalean ageri da.

Hondakin-uren m³ baten hartze, deskarga, garraiatze eta ingurune-hidrikora isurtzearen kostu aldakorrarekin bat dator. Añarbeko Mankomunitatearen Batzarrak urtero bere "Etxekoa ez diren erabiltzaileei saneamendu-zerbitzua emateagatik tasa arautzen duen ordenantza"n bere tarifak onesten dituenean finkatzen duen saneamenduagatik eta isurketagatik tasaren zerga-tasaren %50a izango da zenbatekoa. Portzentaje hau %50ekoa, finkatzen da, zeren Ordenantza honetako subjektu pasiboek aipaturiko zerbitzua erabiltzen dute soilik Loiolako HUAtik itsasora bitartean.

T_{DN} Loiolako HUAko hondakin-uren arazketa "normal" baten zerbitzua emateari dagokion zerga-tasa da, € edo € zentimo/m³-tan adierazia. T_{DN} zati aldakorraren balioa Añarbeko Uren Mankomunitateak finkatzen duena izango da eta Ordenantza Fiskal honen 1 Eranskineko 1.b) atalean ageri da.

Hondakin-ur "normal" baten m³ bat araztearen kostu aldakorrarekin bat dator. Ur "normala" zera da etxeetako ura edo etxeetako urari asimilagarria dena, kontzentrazio hauek dituenak: SST 220 mg/l, DBO₅ 200 mg/l eta DQO 400 mg/l. Añarbeko Mankomunitatearen Batzarrak urtero bere "Saneamendu-zerbitzua emateagatik tasa arautzen duen ordenantza"n bere tarifak onesten dituenean finkatzen da zenbatekoa, eta da, etxeetako erabiltzaileek eta etxeetako ez diren erabiltzaile arruntek Mankomunitateari ordaintzen diotena, beren Udalen bitartez, eta urtero eguneratzen da.

CCC karga kutsatzailearen koefizientea da (dimentsiorik gabea). Ordenantza honetako subjektu pasiboentzako CCC kalkulatzeko da, ondorengo adierazpenari jarraituz:

$$CCC = 0,65 \times \frac{[SST] - 50}{170} + 0,35 \times \frac{[DQO] - 120}{280} + K$$

Non,

[SST] isurketan esekita dauden solidoen kontzentrazioa da, mg/l-tan adierazia

[DQO] oxigenoaren demanda kimikoaren kontzentrazioa da, mg/l-tan adierazia

K isurketak honako substantziarik duenean ezarriko den koefizientea da:

Nitrogeno totala Kjeldahl (NTK)

Fosforo totala (P)

Olio eta koipeak (AG)

Kloruroak (Cl⁻)

Sulfatoak (SO₄⁼)

Kobre (Cu)

Kromo totala (Cr)

Merkurio (Hg)

Zink (Zn)

Kadmio (Cd)

Fenolak

K koefizienteak ondorengo baloreak hartuko ditu:

Parametroa	Gehienez onartzen denarekiko isurketaren kontzentrazioaren portzentajea parametro bakoitzarentzat	K
Nitrogeno totala Kjeldahl (NTK)	< % 80	0,00
Fosforo totala (P)	% 80etik 85era	0,05
Olio eta koipeak (AG)	% 85etik 90era	0,10
Kloruroak (Cl ⁻)	% 90etik 95era	0,15
Sulfatoak (SO ₄ ⁼)	% 95etik 100era	0,20
Kobre (Cu)	< % 50	0,00
Kromo total (Cr)	% 50etik 60era	0,10
Merkurio (Hg)	60etik 70era	0,20
Zink (Zn)	70etik 80era	0,30
Kadmio (Cd)	80etik 90era	0,40
Fenolak	90etik 100era	0,50

Substantzia horietako bat baino gehiago isuriz gero, K faktorea K₁, K₂, K₃, ... horien batuketa izango da, bakoitzarentzat banaka kalkulaturakoa.

Onartzen diren balore maximoak, parametro bakoitzarentzat, honako hauek dira:

Parametroa	Kontzentrazioa (mg/l)
Nitrogeno totala Kjeldahl (NTK)	100
Fosforo totala (P)	15
Olio eta koipeak (AG)	100
Kloruroak (Cl)	1.500
Sulfatoak (SO ₄ ⁻)	1.000
Kobre (Cu)	1
Kromo total (Cr)	4
Merkurio (Hg)	0,05
Zink (Zn)	4
Kadmio (Cd)	0,2
Fenolak	2

Isurketa-Baimen batek parametro bati ezarritako balore-muga gainditzen duen salbuespen kasuan, K faktorea Isurketa-Baimenean ezarriko da, kasu horretan CCC ezingo delarik 1etik behera egon.

[Hondakin ur "normala"k, edo etxeko izaera edo etxekoaren parekagarria dutenak (kontzentrazio hauek dituenak: 220 mg/l SST, 200 mg/l DBO₅ eta 400 mg/l DQO) CCC = 1 azaltzen dute. Aipaturiko kontzentrazio baxuagoak azaltzen dituzten hondakin urek CCC < 1 dute, ondorioz, etxeko tarifa baino txikiagoa den tarifa ezarriko zaie. HUAtik irteten den emariaren kontzentrazio berdina duten urek (50 mg/l SST eta 120 mg/l DQO) CCC = 0 azaltzen dute (CCCak ez ditu balore negatiboak izango), kasu horretan ezarriko den tarifa, hondakin uren emariak HUAREN barrutik ponpatu eta garraiatzearen kostuaren baliokide izango da].

b) Ordenantza Fiskal honen 2. artikuluko b) atalean aurreikusten den zerga-gertaera denean kuota honela kalkulatu da:

Zati aldakorra honela lortzen da: zerga-oinarriari, hots Loiolako HUAn isuritako hondakinen kantitatearekin bat datorrenari (instalazioan bertan tonatan neurtzen dena Mankomunitateko zerbitzu teknikoengatik), dagokion tarifa aldakorra aplikatuz.

Zati finkoa, izaera finkoa duten kostuen finantzaketara dago zuzendua.

Ondorioz, erabiltzaileak ordaindu beharreko zerga-kuota edo tasa bi zatiren batura da, ondorengo adierazpenari erantzunez:

$$\text{Zerga-kuota} = T_{FS} + T_{VS} \times Q$$

Non,

T_{FS} Emandako zerbitzuaren tasaren zati finkoa da, €tan adierazia. Zati finko hau Mankomunitateak finkatuko du eta Ordenantza Fiskal honen 1. Eranskineko 2.a) atalean ageri da.

T_{VS} Tasaren zati aldakorra da, €/t-tan adierazia, Loiolako HUAn isuritako kantitateari (tonatan) aplikatuko zaio. Zati aldakor hau Añarbeko Uren Mankomunitateak finkatuko du eta Ordenantza Fiskal honen 1. Eranskineko 2.b) atalean ageri da.

Q Loiolako HUAn jaso den kantitatea, tonatan adierazia eta baskulan pisatuz kalkulatu.

7. Art. Tasak ordaintzeko era

Ordenantza honen xede diren tasak AUSAri, Añarbeko Mankomunitatea kudeatzen duen sozietate publikoari, ordainduko zaizkio, eman den zerbitzu bakoitzari dagokion faktura prestatu eta igorri ondoren, tasaren Kitapen izaera izango duelarik.

AUSAk igorritako fakturaren ordainketa, zeinak Ordenantza honen saneamendu-tasa biltzen duen, hilabete batean egingo da, igortzen den datatik aurrera.

Fakturen eta kitapenen aurka helegitea aurkez daiteke Zergei buruzko Foru Arau Orokorren arabera.

Aipaturiko epean faktura ez ordaintzeak, premiamendu-bidean bilketa-prozeduraren irekitzea eragingo du.

Premiamenduaren bide administratiboaren exekuzioa aurrera emateko, exekuziorako titulu izaera izango dute Mankomunitateko Lehendakariak sinaturiko Zorpeko Ziurtagiriak, Kontuhartzaitzak fiskalizatuak.

Betearazteko bideko diru-bilketa Mankomunitateko Udaletako Diru-bilketa Zerbitzuen lankidetzarekin edo Gipuzkoako Foru Aldundiaren zerbitzuenarekin egingo da, zordunaren helbide fiskalaren arabera.

8. Art. Orokorrean ezarriko diren arauak

Ordenantza honen xede diren tasei, uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren arabera, aplikagarri zaizkie: Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean eta Bilketa-Erregelamenduan arautzen diren kudeaketa, kitapen, ikuskatze, bilketa, zerga-urratze eta zigorrei buruzko xedapenak.

Xedapen indargabetzailea

Ordenantza hau indarrean sartzen denean, indargabetuta geldituko da kolektoreak edo hobi septikoak garbitzean ateratako hondakin-uren saneamendu-zerbitzuak emateagatiko tasaren Zerga Ordenantza arautzailea, 2007ko abenduaren 31n 253. Zenbakiarekin argitaratutako Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean..

Azken xedapena

Ordenantza hau eta bere 1. Eranskina, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen diren egunean sartuko dira indarrean, eta bertan ageri diren tasaren zenbatekoak 2010eko urtarrilaren 1ean edo argitaratze-dataren hurrengo egunean (beranduago bada) hasiko dira ondorioak sortzen. Ordenantzak indarrean jarraituko du, bere indargabetzea edo aldaketa erabakitzen ez den bitartean.

1. ERANSKINA

Kolektore eta hobi septikoen garbiketan jasotako hondakinuren zati likidoa eta zati solidoaren tratamendurako zerbitzuak emateagatiko tasak arautuko dituen Ordenantza Fiskalean aurreikusten diren tasen baloreak

1. Hondakin-uren saneamendu zerbitzuagatik

a) T_{FL} -ren zati finkoa

Kopurua 107,11 €/zerbitzua

b) T_{VL} -ren tarifa aldakorra

Tasaren tarifa aldakorraren osagaiak:

$$T_{(SPD + V)} = 11,6875 \text{ cent. } \text{€/m}^3$$

$$T_{DN} = 9,0536 \text{ cent. } \text{€/m}^3$$

2. Hondakin solidoak tratatzeko zerbitzuagatik

a) T_{FS} Tasaren zati finkoa

Kopurua 109,22 €/zerbitzua

b) T_{VS} Tasaren tarifa aldakorra

Loiolako HUAN jasotzen den tona bakoitzeko 30,00 €-tan dago finkatua.
